



## **LEHEN HEZKUNTZAKO 2. zikloa: IPUIN SARITUA**

### **NAHIA ETA BERE ZALDITXOAK. Udane Goikoetxea Goñi.**

Aspaldi-aspaldi, mendian, bi neska bizi ziren. Nahia neskato azkarra eta indartsua zen eta Naroa, bere lehengusina, alaia eta azkarra.

Egun batean, Nahia mendira egurra biltzera joan zen. Bat-batean, zuhaitzen artean zerbait mugitu zen, hiru zaldi ziren. Susto ederra eman zioten Nahiarri!! Ondoren, Nahia, zaldiekin jolastu zen ezkutaketara, lasterketak egitera... Oso ongi pasatu zuten, baino egurra bildu behar zuenez, hau esan zuen:

—Barkatu zalditxoak, egurra moztera joan behar dut!!

Zalditxoak Nahiarekin joan ziren egurra moztera. Ondoren, Nahiak zaldiei izenak jarri zizkien:

—Zu Kiko! Zu Kiki! Eta zu...Ululu!!



Beranduago Nahiak etxera joan behar zuen. Horregatik hau esan zuen:

—Etxera joan behar dut! Agur zalditxoak!!

Etixerako bidean, Nahia atzera begiratu eta azeri batzuk ikusi zituen. Nahia izutu zen, azeriek zalditxoei mina ematen ahal zietelako; horregatik Naroaren bila joan zen, laguntza eske. Azkenean, Nahiak eta Naroak zaldiak salbatu eta haien etxera eraman zituzten.

Orduetik, Nahia poz-pez bizi da.